

Hizkuntz politikari zutabe berrituak

AZKEN asteotan euskaltzalegoaren baitan ezinegon berri bat somatu ahal izan dugu: badatioren hauteskundeak datozela eta... nahiago genituzkeen hautabide baztertuak direla eta... Badirudi euskal kultur munduoxo sukarraldi berri batean dugula, osterera ere.

Azken ordutako gatazka politiko-kulturalen aurretik, gizartearen ezizik Erakundeetan bertan ere nabari zen, gauzak aldatzen edo hobetzen hasteko kezkarik.

Non eta Euskararen Aholku Batzordearen lanetan (halako patzaraz lan egin izan duen Erakundearen, alegia) horrelako zerbaitek ikus zitekeen. 'Hizkuntz politikarako oinarriko irizpideak' zeritzan izkribuak azken urteetako euskalgintzaren azterketa kritikoa eta ondokoetarako gogoeta eta jarrera berriak eskatzen zituela esango nuke nik.

Esanahi beretsuko eskeak ugari entzun izan dira. Erakundeetatik at, euskaltzaleen artean ere. Hala ere, iraganaz edo gerokoaz ditugun iritzi eta asmoetan (eta interesetan, beharbad) euskaltzaleok baliteke hainbat puntutan bat ez etortzea.

Dena den, testuinguru hori ahanzi gabe, unean unexoko egokiera mugatuegietatik harago berrituz azaldu nahiko nuke hemen euskaraz landu eta berritu nahi dugun kultur etorkizunarekiko nire kezka.

Hamarkada (erdi)betea (1982-1993)

Muga jakin eta ukaezin batzuren barnean izan arren, inoiz ez bezalako aukera sozio-politikoak bizi izan dugu azken hamarkadako euskalgintzan: hizkuntzaren aurrerapenerako esparru berriak ireki dituzte legeek (1982, EKA; 1986, Nafarroan), eta urte urte diru-baliabiderik franko ere egon da.

Hala ere, euskaltzale gehienok —Erakundeetatik, gizarte zibiletik nahiz bietatik jardun dugunok— itxaropen-galera nabari bat nozitu dugu: aldakuntzek —politikoez, sozialez— ez dute eman, nahi eta espero genuenaren tamainako etekirik.

Horren adibide larriak ez da falta izan: euskaraz ikasi egin da, baina ez omen da erabiltzen; status ofiziala aldatu da legez, baina egitatez eta zinez asko da irabazteke daukaguna; corpus-aren garapen modernoa urrun dago oraindik beharko dugunetik; politikan, hizkuntz administrazio-esparruetan hiztunagoak ez du tratu bat bera jasotzen herrialde ezberdinetan, etab.

Hamar-hamabost urtetako lanaren ondoren, egindakoaz harro egon gaitzke, baina baita falta zaigunaz kezkatuta ere, eta betiere kritikiko. Zorionez, azken egunetan kolore guztietako ahots politiko eta euskaltzale anitz agertu da azterketari ekiteko prest, baita orain artekoaren protagonistia izan direnen artean ere. Estimagarria da hori, batez ere protagonismo hori politikatik eraman denean.

Gure euskalgintzan azter litezkeen arazo zehatzetatik asko da aipa litekeena (bat edo beste, gainera, larrialdi-eragan duguna): hala ere, nahiago dut hemen zerbaite orokorragori helitzea, hain zuzen eguneroko ihar-duncan errazegi ahanzieta zokora utzi ohi dugun zenbait puntu.

Hizkuntz politik(ar)en berrerrakundez-

tapena

Euskararekiko hizkuntz politika ezerezetik eraikitako erakundeztapen baten gain egin behar izan da urteotan. Alderdi politikoez, izan, ez zuten hizkuntz politikarako programarik, eta Erakundeetatik, ihar-dunaz, *asmatu* behar izan da. Beraz, Administrazioak bere baitan dituen inertziaz eta bide 'normalek' agindu dute, hein on batean, egoera 'anormal' bat itxulipurdikatzeko zen hizkuntz politikan.

Horrez gain, ezinbestean, indar politikoaren korrelazioak oso gisa ezberdinetan baldintzatu du hizkuntz arduradunen lana Euskal Herrian zehar. Hizkuntz politikariaren baldadeek, ezarritako baldintzen barruan urratu behar izan dituzte bidezidor ezezagunak.

EKA Hizkuntz Politikarako Idazkaritza (1983) eta Nafarroakoa (1988) testuinguru horretan jaio ziren; eta garatu dira. Horiekin batera, bestalde, euskararekiko politika ez da egin Idazkaritza/Zuzendaritza horietatik bakarrik; ez da hurrik eman ere. 'Euskararen' dirudik handienak bestelako Erakundeetan egon dira beti: Hezkuntza eta Kultura Sailetan, Aldundietan, Udaletan...

USKARAREKIKO HIZKUNTZ POLITIKA EZEREZETIK ERAIKITAKO ERAKUNDEZTAPEN BATEN GAIN EGIN BEHAR IZAN DA URTEOTAN.

Diruek eta politikak guztiz sakabanatuta ziharduten, eta Idazkaritza/Zuzendaritzak ez dute izan politika orokor bat gidatzeko baliabide instituzional, ekonomikoa eta politikorik. Behar bada, halabeharrez horrelaxe izan behar zuen, eta eskarmentuak zerbaite ikasteko ere balio izan du.

Hizkuntz politikarekiko erakunde-egiturak aldaberritu premia egun-argitan dago dagoeneko: 1980ko beharrak ere aldatu direlako, noski, baina baita egindako bidearen ondorioz heldurik dauden lan-programak bestelako troneria eta erabaki politikoez eskatzen dituztelako ere.

Unean-unekotasunaren lan instituzionalak luzaro eta ertaineko egitasmoei ere leku eman behar dietelako da beharrezkoa hizkuntz politikaren Erakundearteko beregituraketa. Hori gabe ezinezko bilakatuko da hemendik aurrera hizkuntz politika emankor bat.

Euskaltzalego/Erakundeak

Erakunde-barneko batasun-molde berriekin batera, bada aspaldidanik kezkararik

gertatzen zaigun besterik; oraindik ere, euskal herriaren botu politikoa eta ahalegin euskaltzalea (oro har, noski) bi bide pake-de edo kontrajarrietatik doaz. Ene ustez, hauxe da —eta sailhestu ezin izan ditugun horien ondorioak dira— euskalgintzan arrastaka dararamagun kontrakarga pisuenetako bat.

Euskaltzalegoaren eta Erakundeen arteko zubia ongi eraikitzen ez den bitartean, jai daukate euskarak eta beronen alde Erakundeetatik nahiz kale gorritik bultzatu nahiko liriatekeen hizkuntz politikak. Zatikako lortpen onak izango ditugu —ezin uka, begien bistan daude eta—, baina politika orokor taxuzko bat ezingo da eratu.

Elkar-lanaren kontra aipatu ohi diren 'arrazoi' guztiek (eta maizegi aurkitzen dira modu bateko edo besteko horrelako arrazoiak) ez didate deus balio: une bakoitzeko elkar-ezinez 'esplicitatzeko' balioko dute, noski, baina beti izango dira hizkuntzaren aldeko politika orokor eta erabakior batean ahalegin guztiz gaitzitu egin behar diren otoparriak.

Horregatik, euskaltzalego zabalaren eta Erakundeen arteko elkarganatzeko honi berehalako urteetan lehentasun politiko osoa eman beharko genioke, noiz etorriko diren ez dakigun garai 'hobeek' begira egon gabe.

Eta horrekin batera, presa berarekin ez izan arren, luzaragoarako gogoan hartzeko beste zerbaite ere ekarri behar da hona: hiru Administrazio-eremutan dugun banaketa.

Politikaren batasun geo-instituzionala

Erakundeen arteko hurbiltze haren batera, Administrazio ezberdinen arteko esku-emaiteak ere behar dira, noski. Euskararekiko politika hiru Administrazio ezberdinetan banatuta daukagu, eta, zoritxarez, ez da hori tokian tokiko baldintzetara egokitu behar haren fruitu.

Euskadiko Komunitate Autonomoa, Nafarroa eta Iparraldea, bakoitza bere bidetik doa, denek ere hizkuntza bat beraren gain lan egin behar dutela jakingo ez balute bezala. Hiruon artean beharko litzatekeen gutxieneko batasun-bideak urratzen ahalegindu beharko lukete politikariek ondoko urteetan, denon aurrean lotsagarri geratu baino lehen.

Posible ote zaio, gero, politikariari eguneroko sasietan gehiegi trabatuta gabe horrelako zeregin zabalagoetan sartzea? Agian utopia batekin borrokatzea da hau, baina eguneroko lanean egitasmo nagusien helburuak erabat ez lausotzeko ere, gogoratu behar dago hizkuntzaren batasun geo-instituzional horren premia.

Jada zerbaite egin da xede horrekin (Euskaltzalegoaren lanetarako, adibidez), baina luzea da oraindik egiteko duguna. Hauteskuntzarako sprintari urrutitik ekin zaion honetan luzarorako helmuga hauek iradoki-ko nizkieke alderdiei, euskararen onerako izan daitezkeelakoan.

JOSEBA INTXAUSTI

EUSKARAREN AHOJKU BATZORDEKIDE OHLA

BERRIAK ZIRI



JUAN MARIA OLLORA
Euzko Buru Batzordeko kidea DEIA



SYLVESTER STALLONE
Zinema aktorea EL PAIS SEMANAL



BELEN MIJANGOS
El Tubu musika aldi-zarikoa zuzendaria EGIN



STEVEN ZAILLIAN
Zinema zuzendaria DIARIO 16

«Elkarri arretaz jarraitu beharko den proiektu interesgarria da»

«Nik neuk aplikatuko nuke heriotza zigorra. Ez nuke segundurik galduko. Autoan pistola bat daramat. Eta norbait gehiegi hurbiltzen bada, hil egiten dut»

«Gaur egun, nola hedabideek hala orokorrean gizarteak berak nahiko gauza normalizat onartu dituzte rocka eta bertako taldeak»

«Gidoi bat produktore bati saltzea esperientzia umiliagarria da»

ZAKILIXUT

© Olariagak

